

getxoBerri



Getxo
bizi ezazu

#GetxoBiziEzazu

Doako alea

1.493 zb.
www.getxo.net

Martxoak 15
>> Martxoak 25

2018

/ Nabarmentzekoak

- > Portu Zaharrari buruzko saio parte-hartzailea (2. or.)
- > II. "Txiki Baskardo" kontakizunen haurrentzako Lehiaketa (3. or.)
- > M8a: data historikoa genero berdintasunaren borrokaren alde (4. or.)

Chareneé Wade,
Billy Hart,
Joshua Redmanek,
Michel Camilo
eta Tomatito
izango dira
Getxo Jazzean
(3. or.)



Antzerkia. Larunbata, hilak 24, 20:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Sherezade y las capas de la cebolla", Vaivén Producciones-en eskutik. 10€.

Haur antzerkia. Igandea, hilak 25, 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Jon Braun", Anita Maravillas-en eskutik. Euskaraz. 5€.

A-
GENDA

Funtsezko ekipamendua da, udalerrri osoari zerbitzua emango diona

RKEren lehen zerbitzuak irekiko dira, apirilaren 9an, astelehenarekin

RKE-Romoko Kultur Etxeak apirilaren 9an, astelehena, zabalduko ditu ateak. Egun horretan martxan egongo diren zerbitzuak, honako hauek dira: Udal Euskaltegia, liburutegiak (haurrena eta nagusia), Gaztelekua, uzteko aretoak, Kultur Etxeko tailerrak eta entsegu-gelak (instrumenturik gabe). Gainontzeko zerbitzu eta instalazioak apurka-apurka zabalduko dira hurrengo hilabeteetan. Plaza eta bere ingurunea egokitzeko lanak ere aurrera doaz, ondoren, aukeraturako zabuak ipintzeko.

RKE ekipamendu berritzailea da, energetikoki eraginkorra, euskaraz mintzatzera gonbidatzen duena eta udalerrri osoari zerbitzua emango diona. Hasierako ordutegiak honako hauek izango dira: 08:30 - 14:30 eta 16:00 - 22:00, astelehenetik ostiralera; eta 09:00 - 13:00 larunbatetan.

Liburutegien eta auto-mailegu zerbitzuaren ordutegia honako hau izango da: 08:30 - 14:30 eta 16:00 - 20:30, astelehenetik ostiralera; eta 09:00 - 13:00, larunbatetan.

Gobelako liburutegiak itxi egingo du
Gobelako liburutegia itxita egongo da



Liburutegia

martxoaren 19tik apirilaren 7ra bitartean funtsak instalazio berrira eraman ahal izateko. Data horietan aurreikusita zeuden itzulerak RKEen egin ahal izango dira apirilaren 9tik aurrera. Egun horietan liburutegien arteko mailegu-zerbitzua ere bertan behera geratuko da; baina telefo-

noaren bidez egin ahal izango da Villamonte eta San Nikolas liburutegietara deituz, eta bertan jaso ahal izango dira eskatutako liburuak, heltzen direnean.

Bisita gidatuak
Herritarrei RKE instalazio berriak eza-

gutuzera emateko, apirilean bisita gidatuen programa jarriko da martxan (datat eta ordutegiak zehaztu gabe daude oraindik). Laster zabalduko da horren inguruko informazioa.

Lehen zerbitzuei buruzko bideoa: https://youtu.be/dt6u1M6C_bM

Aurrekontu parte-hartzaileetan botu gehien lortu dituzten proposamenak dira

Udalak parkeak eta lorategiak hobetuko ditu, komun publikoak atonduko ditu eta Aiboan igogailua ipiniko du

Udalerriko parkeak eta lorategiak hobetzeko proposamena izan zen bozkatuena 2018ko aurrekontu parte-hartzaileen barruan proiektuak lehenesteko bigarren fasean, zein otsailaren 11n bukatu zen. Boto gehien lortu zituzten hurrengo proposamenak izan ziren: udalerriko hainbat gunetan komun publikoak jartzea eta irisgarritasuna hobetzeko igogailu bat jartzea Aiboako geltoki inguruko desnibela murrizteko helburuaz. Proiektu horiek aurrera eraman ahal izateko milioi bat euroko diru-partida erreserbatu dute. Udalaren ustez, hautatutako proposamenek zerbitzua eta erantzuna emango dizkiete, hainbat jarduketa eta tematikatan, udalerriko auzo eta adin ezberdinetako pertsoneri; eta jarduerak sustatzen jarraituko da herritarren eta Udalaren artean gero eta harreman es-

tuagoa eta aktiboagoa lortze aldera. Jasotako botuen kopurua 1.076 izan zen (+ %9,1); haietatik, 978 baliiodunak eta 98 baliogabeak. 593 paperean aurkeztu ziren eta 483 online; 567 andrazkoenak izan ziren eta 411 gizonezkoenak. Adina kontuan hartuta, 572 boto-emaile

30-65 urte bitarteko pertsonak izan ziren; 334, 65 urtetik gorakoak; eta 72, 30 urtetik beherakoak. Paperean emandako botuei dagokienez, auzoak kontuan harturik, Romo-Areetan 224 boto jaso ziren, Algortan 220 eta Andra Marin 98.



| ORDENA | PUNTUAK | PROPOSAMENA |
|--------|---------|--|
| 1 | 5.002 | Parkeak eta lorategiak hobetzea |
| 2 | 4.792 | Udalerriko hainbat gunetan komun publikoak jartzea |
| 3 | 4.791 | Irisgarritasuna hobetzea Aiboako geltoki inguruko desnibela murrizteko igogailu bat jarriz |
| 4 | 4.582 | Gazteentzako ekimen gehiago |
| 5 | 4.527 | Tokiko ekonomia sustatzeko jarduerak gehiago |
| 6 | 4.359 | Bidegorrien sarea zabaltzea eta hobetzea |
| 7 | 4.074 | Areetako Geltokia plaza egokitzea |
| 8 | 3.139 | Turismoa sustatzea |



MARTXOAK 15 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. Villamonteko haur liburategian, 18:00etan, "Hamai-ka kolore" (euskaraz, 3 urtetik gorakoentzat) Itziar Gameraoren eskutik. **Literatura solasaldia.** Algortako Kasinoan, 19:45ean, Roxana Popelkaren "Preparados, listos, ya" liburua solasaldia. Antolatzailea: Kultur Etxearen Sortze-idazketa tailerra. **Getxo Live!** 20:00etan Algortako Jolasurre tabernan, Urban (popa). **Gizatiar.** Romo-Areetako giza eta kultura elkarte. Hitzaldia: "Ictus. Prevención, síntomas y tratamiento". Hizlaria: M^a Cruz Lacen (neurologoa). 18:15ean Romoko San Jose elizako lokaletan. **Euskaraldia.** Bilera, Romoko Kultur Etxean, 19:00etan. "Agurain 75 ordu euskaraz" bideo-dokumentalaren proiektzioa eta eman beharreko hurrengo urratsak.

MARTXOAK 16 OSTIRALA

Hitzaldi musikalak. "Evolución histórica de la orquesta sinfónica. El modelo clásico de orquesta sinfónica del S. XVIII". Hizlaria: Jose M^a Bretos Linaza. 18:30ean Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako fonotekan. Sarrera 3€.
Haur tailerra. Adina: 4-6 urte (heldu batekin lagunduta). 18:00-19:00h., Gobelako liburategian. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitz. **Liburuaren aurkezpena.** Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, Isabel González Ganzoren "Sol de invierno" poema liburuaren aurkezpena. **Zine Kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Steve Soderberg zuzendariaren "La suerte de Logan" filmaren proiektzioa eta foruma. 7 urtetik gorakoentzat. Sarrera 2,90€.
GetxoMeeting. Hamabostean behin egiten den enpresa eta pertsona ekintzaileen topaketa. Gaia: "Y tú, ¿qué haces para sacar mejor provecho de las redes sociales para tu negocio?". 14:30-16:30h., Getxo Elkartegian (Ogoño 1, Areeta).

MARTXOAK 17 LARUNBATA

Haur tailerra. Adina: 4-6 urte (heldu batekin lagunduta). 11:00-12:00h., Villamonteko liburategian. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitz. **Piano errezitaldia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Jianing Kong-en emanaldia (Paloma O'Shea Nazioarteko Piano Lehiaketan sarituta). Sarrera 10€.
San Patricio. Folk kontzertua. 22:00etan, Algortako Piper's Irish Pub-en, The Old Timey String Band. **Euskadi-La Manchako abesbatza-topaketa.** Voces Doradas (Ciudad Real) eta Itxartu Abesbatza (Getxo). 20:15ean, Algortako Hirukoiztarren elizan.

MARTXOAK 18 IGANDEA

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Los pitufos, la aldea escondida" filmaren proiektzioa (adin guztientzat). Sarrera 2,10€.
Mendi-irteera. Valdecebollas (Hijar mendilerroa). Antolatzailea: Etorki-

zuna Mendi Taldea. etorkizunamt@gmail.com Tel.: 606 63 71 28. **Xiki tailerrak.** Uraren Nazioarteko Eguna dela eta, plastikozko platerak berrerabiliz animalia itsastar egingo dira, Getxoko Ingurumen Aretoa. 10:30 -13:30. 6-15 urte. Tel.: 688 88 35 96.

MARTXOAK 19 ASTELEHENA

Odol-ateratzeak. Algortako Geltokia plazan, goizez eta arratsalde, eta Bidezabalgo osasun zentroaren inguruetan, arratsalde. **Kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Andrés Isasi abesbatzaren eskutik.

MARTXOAK 20 ASTEARTEA

Martxoaren 8a. Ipuin-kontalaria, "Ni eta punto" Bea Egizabalaren eskutik, Villamonteko Kultur Aretoa, 19:30ean, Udalak antolatuta. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

MARTXOAK 21 ASTEAZKENA

Versadas, olerki Kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, olerkizaleen klubaren bilera. Oraingo honetan, José Manuel Caballero Bonald. Sarrera dohainik, edukiera bete arte. **Mugabarik. Hitzaldia.** "Van Gogh, pintor". Hizlaria: Emilio Melón (Arte Ederretan aditua). 19:30ean, Algortako Kultur Etxean. Antolatzailea: Mugabarik garapen pertsonal eta komunitarioaren aldeko elkarte.

MARTXOAK 22 OSTEGUNA

Getxo Live! 20:00etan Pablo Ríos (popa) Kirol Portuko Silver's Tavern-en. **Gizatiar.** Romo-Areetako giza eta kultura-elkarte. Aurkezpena: Sevillarako txangoa, 17:00etan; eta hitzaldia: "Algo va a cambiar... Gizatiar del futuro, ¿te lo vas a perder?". Hizlaria: M^a Gutierrez (EDE Fundazioa), 18:00etan, Romoko San Jose parrokiako lokaletan.

MARTXOAK 23 OSTIRALA

Hitzaldi musikalak. "Evolución histórica de la orquesta sinfónica. Innovaciones a partir del s. XIX". Jose M^a Bretos Linazarekin. 18:30ean, Areetako Musika Eskolako fonotekan. Sarrera 3€

Haur tailerra. Adina: 4-6 urte (heldu batekin lagunduta). 18:00-19:00h. Gobelako liburategian. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitz. **Zinema Paradiso.** Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, "Detroit" proiektioa (ingelesez) azpiztituluekin eta foruma. Zuzendaria: Kathryn Bigelow. 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera 2,90€.
Kontzertu sakroa. 20:00etan, Areetako Ama Mesedeetako elizan, Ondarreta Abesbatza eta Arima Kamerala Ganbera Orkestra. **Kontzertua.** 20:00etan, Algortako Bariko San Nikolas elizan, Andrés Isasi abesbatzaren eskutik.

MARTXOAK 24 LARUNBATA

Haur tailerra. Adina: 4-6 urte (heldu batekin lagunduta). 18:00-19:00h., Villamonteko liburategian. Izena emateko: www.getxo.eus/apuntazaitz. **Antzerkia.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 20:00etan, "Sherezade y las capas de la cebolla", Vaivén Producciones-en eskutik. Sarrera 10€.

MARTXOAK 25 IGANDEA

Haur antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, "Jon Braun", Anita Maravillas-en eskutik. Euskaraz. Sarrera 5€.

Portu Zaharrari buruzko tailer parte-hartzailea

Martxoaren 26an, astelehenaz, Portu Zaharraren paisaia kulturalaren kontzeptua lantzeko saioa egingo da Algortan. Saioa arratsaldeko 18:30etik aurrera egingo da, Andrés Isasi Musika Eskolako Kristalezko Gelan (Algortako San Nikolas plazan dagoena). Topaketa honekin auzo honek bere inguruarekin daukan erlazioa ulertu nahi da, hurrengo galderari erantzuna emanez: *Zein da Portu Zaharraren eragin-eremua?*. Ekimena, Portu Zaharraren paisaia kulturalaren mugak ezartzeko lanen barnean aurkitzen da.



Gelan tokia dagoen heinean, parte-hartzea irekia izango da, baina agertzeko asmoa duten pertsonak hurrengo email edo telefonora zuzendu beharko dira: secretarias.

construccion@tecnalia.com /667 17 88 64. Apirilaren 5era arte internet bidez parte-hartzeko aukera ere izango da, hortarako Udalarren web orrian eskegi den galdeketa betez: <https://eudala.getxo.eus/WebGEncuestas/Encuestas.asp?GET&A=2018&N=3&changeid-ioma=EU>

Paisaia kulturala biztanleriak lurraldearen edozein zonalde antzematen duen modua bezala ulertzen da, berezko izaera duena, gizatiar edo naturalak diren faktoreen arteko elkarrekintzaren emaitza dena.

"Aniztasunaren alde, diskriminazioaren aurka", M21eko leloa

Aniztasunaren alde, diskriminazioaren aurka da Udalak, gizarte entitate eta herritarrekin elkarlanean, antolatutako jardueren leloa, martxoaren 21ean ospatzen den Arrazakeriaren eta Xenofobiaren kontrako Nazioarteko eguna dela eta. Helburua da kultura aniztasuna sustatzea, kultura-arteotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako hiri eredu inklusiboan.

Egitariuari arrazakeriaren aurkako tailer eta DJing/Hip-Hop saioak emango dio hasiera, Jota Mayúscula eta Betto Snayren eskutik, larunbatean, martxoak 17, 12:00etan Algortako Gaztelekuan. Izenematea: www.getxo.eus/ekintzak.

Martxoaren 17 eta 18an, Aisibisia, eta Algortako eta Romoko Gazteleketuak gazteek kultura-arteko Grafitia egingo dute Portu Zaharreko aparkalekuan, eguraldiak uzten badu.

Ostegunean, martxoak 22, 19:00etan, *Un regalo para Kushbu: historias que cruzan fronteras* izenburuko komikia aurkeztuko dute Adi Espacion (Basagoiti etorbidea, 56). Zineklub zikloak Detroit filma proiektatuko du ostiralean, hilak 23, eta hurrengo

egunean, 12:00etan, Getxo Elkartegian babes-gabezia, populismo eta xenofobiari buruzko hizketaldia izango da Imanol Zubero eta Andrea Ruiz Balzolarekin. Etorkinak Plataforma Feder-

azioak etxebizitzaren alokairuari buruzko tailerra antolatuko du, eta Matiz elkarteak eta liburategiek tailer batzuk. Informazio gehiago: www.getxo.eus.

Ibarbengoako parkingaren aurkako sabotajearen gaitzespena

Alkateak, Imanol Landak, argi eta garbi gaitzetsi zuen iragan astean Ibarbengoako aparkalekua eraikitzeko lanen aurka egindako sabotaje ekintza; 40.000€tik gorako kalteak eragin zituen ekintza horrek. Alkatearen esanetan, *"indarkeriazko ekintza izan da, inolako justifikaziorik eta legitimaziorik ez duena"* eta, halaber, *"iraganeko kontua den indarkeria fisikoan oinarritutako erahonetako estrategien alde egiten du-*

nik oraindik gure herrian egotea" deitoratu zuen.

Alkateak bere babes osoa eta erabatekoa adierazi zion behin eta berri. Eusko Jaurlaritzari Ibarbengoako aparkalekuaren eraikuntza dela-eta, baita sabotajearen egileen kontra aurkeztutako salaketa dela-eta.

Sabotajea larunbat goizaldean gertatu zen eta ondorioz aparkalekua eraikitzen ari diren esparrua inguratzen duen hesia txikitu zuten.

Adierazpen instituzionala

Udaleko Bozeramaleen Batzordeak, Martxoaren 9an, ospatzen den *Itxura batean arrazoirik gabe desagertutako pertsonen eguna* dela eta, Udaleko Bozeramaleen Batzordeak adierazpen instituzional bat onartu zuen aho batez.

Horretan Getxon egoera lazgarri hau jasaten duten familia eta hurbilekoei, ulermena eta solidaritatea adierazi zieten; bizi duten ziurgabetasuna, angustia eta minaz jabetuta. Aldi berean, bildutakoak familia eta hurbilekoen aldamenen jarri eta udalaren ahalmenaren arabera, bizi duten egoera larria konpontzen lagundu ahal duen edozertan laguntzeko prest agertu ziren udal jardueran eta errealitate hori zabaltzen lagunduko dutela Getxon.

2019 arrazoierabakitze

Gure Esku Dago ekimenekoek ekintza parte-hartzailea antolatu dute hilaren 24rako, larunbata, 10:00etan, Algortako San Nikolas ikastolan. Zergaitik erabaki galdara ardatz hartuta Euskal Herriarren estatus politikoari buruz erabakitze eskubidearen aldeko arrazoierabakitze dirak mahai gainean. *"Modu batera edo bestera, guztiok daukagu erabakitze nahia eta beharra, hainbat unetan: herri gisa, hezkuntzan, ekonomian, hizkuntzan, naturan... Guztion gogoarekin Herritarron Ituna sortuko dugu, herriak herriarentzat egina"*, aitaputa dute Gure Esku Dago-koek. Saioan parte hartzeko eposta bidali: gureeskudagogetxo@gmail.com



- **Lagunen bila nabil.** Bakarrik nago eta Gobelako inguruan bizi naiz. Tel.: 94 464 63 57.

- **Neska arduratsua** prest dago adinekoak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. Eskarmetua du eta libre dago. Tel.: 631 49 32 10.
- **Andrazkoa,** etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest dago. Tel.: 631 02 15 50.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

GETXOKO KATU KOLONIAK - COLONIAS FELINAS DE GETXO

KALEKO KATUA NAIZ

BAINA EZ NAIZ ARRISKUTSUA

SOY UN GATO CALLEJERO

Y NO SOY UNA AMENAZA

Gure udalerrian bizi diren katuak hartu, antzertu eta baren jatorriko koloniarak bueltatzeko programa. Horren helburua kolonien kontrola gabe ugartzea eta auzokideen arteko gatazkak saihestea da, baita animalia horien bizi kalitatea hobetzea ere.

Programa de captura, esterilización y suelta a su colonia original de los gatos que conviven en nuestro municipio. Con ello, se persigue reducir la proliferación descontrolada de colonias, disminuir los conflictos vecinales y mejorar la calidad de vida de estos animales.

Getxo
94 466 01 91 - ingurugiroa@getxo.eus



Uribe Kostako Bertsolarien Txapelketaren bigarren kanporaketa Algortan

Uribe Kostako Bertsolarien Txapelketaren bigarren kanporaketa izango da Algortan, ostiralean, martxoaren 16an, hiru hitzordurekin. Lehena 19:00etan hasiko da Saniko tabernan (Basagoiti etorbidea, 85), Imanol Uria, Pello Etxebarria, Maddalen Ruesgas eta Peru de Pedro bertsolariekin. Bigarren hitzordua 20:00etan izango da, eta Tunel Boca tabernan (Sarrikobaso, 3) eta bertsolariak Peru Vidal, Naroa Torralba, Haritz Urrutikoetxea eta Aritz Landeta, eta hirugarrena eta azkena, 21:00etan hasiko da Villamonte tabernan (Salsidu etorbidea, 20B), Arrate Illaro, Itxaso Paya, Ekaitz Larrazabal Katxo, eta Maider Barañanorekin. Saio horien ondoren, finalurrekoak eta finala datorren martxoaren 24an, larunbatean, izango dira Sopelan. Lehenak egunean zehar ospatuko dira, eta ondoren sailkatuek 22:00etan Plaza Beltzan hasiko den finalean hartuko dute parte.

Bestalde, datorren maiatzaren 13an Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udabarriko fasearen bi saio izango dira Fadurako kiroldegian, 12:00etan eta 17:30ean.

Zuzenketa.

Aste Santuko Kolonia Musikalak Algortako Andrés Isasi Musika Eskolan egingo dira eta ez Areetako zentroan, huts batengatik *getxoBerriren* aurreko zenbakian jaso genuenez. Argibide gehiago eta inskripzioak: karimakoloniamusikalak@gmail.com

Sarrerak apirilaren 3tik aurrera izango dira salgai

Chareneé Wade, Billy Hart, Joshua Redmanek, Michel Camilo eta Tomatito izango dira Getxo Jazzean

Aurtengo Nazioarteko Jazzaldiaren saio nagusien eskaintza dagoeneko osatuta dago. Chareneé Wade abeslaria, Billy Hart bateria-jotzailea, Joshua Redman saxofonista eta Michel Camilo piano-jotzaileak eta Tomatito flamenkoko gitarristak osatutako bikotea gehitu dira aurretik iragarri ziren Kenny Garrett eta Chano Domínguez artistei. Guztira, Getxo Jazzek 16 saio hartuko ditu uztailaren 4tik 8ra, eta ordaintzekoak diren saioetarako sarrera eta abonamenduak apirilaren 3tik aurrera egongo dira salgai Algortako Kultur Etxean eta Kutxabank sarean.

Chareneé Wadek abian jarriko du jazzaldia uztailaren 4an. Abeslari estatubatuarra etorkizun handiko izena da nazioarteko eszenan. Bere tinbreak, dinamika harrigarriaz erabilita, Betty Carter eta Sarah Vaughan gogora ekartzen ditu eta horrek dituen berezko ñabardurak egungo jazzaren aban-

goardiari lotuta daude.

Uztailaren 6an, ostirala, Billi Harten (1940, Washington D.C.) txanda izango da, jazz arloko bateria-jotzaile handienetako bat. Bere ibilbide luzean zehar, perkusionista amerikarrak ospe handiko artistekin jardun du elkarlanean, esaterako Otis Redding, Montgomery Brothers, McCoy Tyner, Wayne Shorter, Joe Zawinul, Pharoah Sanders, Marian McPartland, Herbie Hancock eta Stan Getzekin, horien taldeetako kide edo kolaboratzaile gisa. Getxon, laukote formatuan ariko da eskarmentu handiko musikaria Joshua Redman (1969, Berkeley) saxo-jotzailea gonbidatu berezia izango duela.

Michel Camilok (1954, Santo Domingo) eta Tomatito (1958, Almeria) gitarrak jotzaileak osatutako bikoteak amaiera ezin hobea jarriko dio jazzaldiari, uztailaren 8an. Orain dela 30 urte baino gehiago aritu ziren elkarlanean lehenengo

aldiz, 1984ko Madrilgo Jazzaldian, hain zuzen ere. Spain, Spain Again eta Spain Forever disko-trilogian begi-bistan dago armoniak lantzeko eta aurrekaria izan den errepertorio zaindua sortzeko ahalegin handia, oinarriak ipini dituen, mundu osoan zehar egindako hainbat eta hainbat biratan erakutsi dutenez.

Talde Lehiaketa

Kontzertu nagusietako artisten aurretik, ohi bezala, Talde Lehiaketako lau finalistak jardungo dira. Aurten 20 herri-tako 64 taldek parte hartu dute aurreneko fasean eta, horien artean, honako lau hauek hautatu ditu epaimahiak: Anders Fjeldsted Sextet (Danimarka), Bilderband (Alemania), Rostov Jazz Quartet (Errusia) eta Pepe Zaragoza Quintet (Espainia). Finalistek jaialdiaren lehenengo lau egunetan parte hartuko dute, hurrenez hurren, eta irabazleak berriro jardungo du azken egunean.

I. "Txiki Baskardo" kontakizunen haurrentzako Lehiaketa

Kultur Etxeak abian jarri du I. *Txiki Baskardo* Kontakizunen Haurrentzako Lehiaketa, Ramiro Pinilla idazlearen memoria mantentzeko eta DBHko 1. mailako ikasleen artean literatura-sorkuntza bultzatzeko. Deialdiaren arauak Getxoko Kultur Etxeetan zein www.getxo.eus/txikibaskardo webgunean dagoeneko eskura daitezke.

Interesdunek ikastetxeen bitartez edo beren kabuz parte hartu ahal izango dute. Bi modalitateetan, lanak originalak eta argitaragabeak izan behar dira (osorik edo partzialki), ezin izan

dute aurreko lehiaketatan saririk jaso, eta euskaraz eta gaztelaniaz izan daitezke.

Ikastetxeen bidez hartzen bada parte, DBHko lehen urteko irakasleek ikasleei proposatuko die banaka kontakizuna idatzi beharko dute, luzera eta gaia libreekin, eta irakasleak gehienez bi banakako kontakizun aukeratuko ditu talde edo gela bakoitzeko. Fase hori apirilaren 23an amaituko da.

Modalitate librean, DBHko lehen mailako ikasleak aurkeztu ahal izango dira, beren ikastetxeak hautaketan parte hartzen ez badu edo Bizkaiko beste edozein udalerritan kokatuta badago. Getxon bizi behar dira, eta frogatu beharko dute 2017-2018an matrikulatuta daudela. Lanak jasotzeko epea apirilaren 13an amaituko da.

Finalistek ekainaren azken astean gehienez 120 minutu izango dituzte luzera askeko kontakizun bat idazteko, epaimahaiak zehaztutako esaldiari jarraituz. Esaldia Ramiro Pinillaren *Txiki Baskardoren ibilerak* liburitik ateratakoa izango da, 1980an euskaraz eta gaztelaniaz argitaratutakoa.

Sari bat izango da hizkuntza bakoitzean, 10 hazbeteko tableta elektronikoa. Finalistek diploma bat jasoko dute, eta Getxoko edozein liburu-dendatan liburuak erosteko 50 euroko txeki bat. Lehiaketaren baldintzak: www.getxo.eus/txikibaskardo

Jianing Kong pianista txinatarraren errezitaldia, Areetan

Jianing Kong (1986, Guangdong) piano-jotzaile txinatar gazteak kontzertua eskainiko du larunbat honetan, martxoak 17, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean. Errezitaldirako sarrera 10€an dago salgai eta bere saioan Beethoven eta Liszten piezak joko ditu.

Jianing Kong etorkizun handiko ibilbidea ari da egiten eta horren ondorioz zenbait sari irabazi ditu izen handiko nazioarteko lehiaketetan, estatuan zein atzerrian. Gaur egun, ibilbide artistikoa eta irakasle lana (Londreseko Royal College of Musicen) uztartzen ditu.

Itxarturen kontzertua

Bestalde, Algortako Hirukoiztarren parrokiak hartuko du Euskadi-Mantxako abesbatzen Topaketa. Ekitaldia



larunbat honetan, martxoak 17, izango da, 20:15ean. Voces Doradas (Ciudad Real) eta Itxartu Abesbatza (Getxo) arituko dira.

Patrizio Deunaren kontzertua Algortan

The Old Timey String Band izeneko laukote getxotarra izango da aurten Patrizio Deunaren eguneko kontzertu tradizionalaren protagonista, larunbatean, martxoaren 17an, 22:00etan, Algortako The Piper's Irish Pubean.

Doakoa izango den kontzertuan country, folk, bluegrass eta Iparramerikako jatorria duen musikaren soinuak entzun ahal izango dira. Emanaldian, bere pieza eta stand-batzuk eskainiko ditu taldeak.



BERRI LABURRAK

II. 'Mamis' Hockey Jaialdia. Fadurako udal kiroldegian egingo da asteburu honetan, martxoaren 17an, 10:00etatik aurrera, eta 18an, 09:30ean, eta 18an, 09:30ean, +35 emakumezkoen II. Belar Hockey Txapelketa, Hockey Stick Getxo Klubak antolatuta. Txapelketan, Euskadi, Aragoi, Asturias eta Kantabriako 80 jokalaria baino gehiago izango dira.



I. Getxo Gau Trail. Larunbat honetan, hilak 17, I. Getxo Gau Trail jokatu da, gaueko lasterketa, 7,5 edo 15km-koa, gizonetako zein emakumezkoetako. Getxo eta Berango arteko mendi-bideetan barrena ibiliko da. Proba NonStop Aventura antolatu du Getxo Kirolak babestuta; 19:30ean hasiko da eta Faduran kokatuko dira irteera eta helmuga.

Etorkizunak kamisetak erregalatzen ditu. Etorkizuna Mendi taldeak kamiseta tekniko bana erregalatzen die bere bazkideei. Bazkide ez direnek 10 euroan erosi ahalko dute. Eskaera egiteko azken eguna: martxoaren 26a (eposta edo WhatsApp bidez edo egoitzan, neurriak probatzeko: S-M-L, neskentzat, eta S-M-L-XL, mutilentzat).



Getxo Kirolak Raspas Arraun zoriondu du

Álvaro González Kirol zinegotziak Raspas del Embarcadero ordezkaritza bat eta hiru arraunlari, Virginia Díaz, Marcos Morales eta Jorge Pineda, hartu ditu Faduran, azken garaipenengatik zoriontzeko. "Zuon kirol lorpenak gauzak oso ondo egiten ari zaretelako proba nabaria dira", esan zien zinegotziak.

1.176.000€-ko diru-laguntzak, klub eta kirolarientzat

Getxo Kirolak udal erakundeak ireki du dagoeneko epea udalerriko klubek eta kirolariek aurtengo diru-laguntzak eska ditzaten. Guztira, 1.176.000€-ko diru-laguntzak emango dira, bai kirol elkarteek osatzen duten sareari, ohiko jardueren ondoriozko ordainketei aurre egiten laguntzeko (jardueren egutegia, lokalen alokairua, gastu arruntak etab.), bai banakako lehiaketetan diharduten errendimendu handiko udalerriko kirolariei laguntzeko. Interesa duten klubek eta pertsonak Getxo Kirolak-en webgunean kontsulta ditzakete deialdiaren oinarriak eta eskabide desberdinak aurkezteko ezarri diren epeak.

Saskibaloia campusa eta showcase bat Faduran

Getxo Saski Baloi Taldeak saskibaloia campusa eta showcase delakoa antolatu du Fadurako kiroldegian, martxoaren 31n eta apirilaren 1ean; showcase kirol horretako etorkizun handiko gazteen hautaketa proba da bekak emateko, beraien ikasketak Amerikako Estatu Batuetako institutuetan egin ditzaten.

Campusa 12 eta 18 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta eta teknifikazio-maila handia izango du. Ezinbesteko baldintza da, parte hartzeko, ingeles maila ertaina edukitzea. Campuseko zuzendaria Sasha Stratijev izango da, showcasen arduradun duen Tridente Plataformako arduraduna.

Hautaketa proba horrek, lehenengo aldiz egingo da Getxon, 15 bat beka emango ditu AEBrako; bi entrenamendu eta bi partidua izango dira, ikus-entzunezko materialarekin. Argibideak eta prezioak kontsultatzeko: www.plataformadente.com edo 654 205 412 tel. (Sasha Stratijev).

Asier Larrinaga Euskadiko Boxeo Txapelketan

Asier Larrinaga Romoko boxeolariak gogo handiz ekingo dio welter arina pisuko Euskadiko Txapelketari; larunbat honetan, hilak 17, jokatu da Sestaoko Las Llanaseko pilotalekuan. 24 urte ditu Bunk3r Boxing School taldeko boxeolariak eta esku bateko lesio gaitz baten ondorioz hilabete askoz bajan egon eta gero indarrez itzuli da lehiaketa; horren adibide, Bizkaiko Txapelketa irabazi berri duela



modalitate berean (muga 64 kiloan duena).

M8a: data historikoa genero berdintasunaren borrokaren alde

2.500 pertsona baino gehiago, gehienak emakumeak, kalea atera ziren Getxon pasa den martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, genero berdintasuna alor guztietan aldarrikatzeko, Uribe Kostako mugimendu feministaren deialdiari erantzuten. Aurrekaririk gabeko mobilizazioa izan zen, egun horretan Bilbon, Euskadin, estatuan eta hamaika herrialdeetan egingoak bezala.

Martxoak 8 horretan, AJANE, Algortako Jubilatuen Elkarteak emakumeek mural bat egin zuten, gizonak heltzen diren tokietara emakumeek dituzten zailtasunak irudikatuzko.

Aurretik, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak aho batez onartu zuen genero berdintasunarekiko konpromiso-adierazpen instituzional bat. Testu osoa udal webgunean irakur daiteke: <https://goo.gl/SvPVWm>

